

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

IKTEI BURUZKO HEZKUNTZA AZTERKETA

GURASOAK

----- HAURTZARO IKASTOLA ETA ELIZALDE IKASTETXEA-----

FISHERNET Hezkuntza-Teknologia taldea

2017ko urria

Aurkibidea

0. Sarrera	4
1. Parte-hartzaileen datuak	5
2. Erabiltzen dituzten tresnak (gazteen inkestatik hartuta)	6
3. Erabilera eta larritasun mailaren analisiak atalka	7
3.1. Erabilera ohiturak	8
3.2. Edukiak eta deskargak	10
3.3. Datuen kudeaketa	12
3.4. Harremanak	14
3.5. Argitalpenak	16
4. Aldagai konposatuak	18
5. Adina eta kontuak	20
6. Arauak eta mugak	21
7. Bitartekaritza	22
8. Ondorioak	23

0. Sarrera

Ondoko ikerketa hau 2015ean eta 2017ean gai honi buruz egindako azterketaren osagarria da. Kasu horietan gazteei zuzendutako galdetegi bat osatu zen. Galdetegi horietan gazteek komunikatzeko eta sozializatzeko erabiltzen dituzten IKTei buruz galdetzeaz gain, beraiek giten dituzten erabilera desegokiak eta erabilera horien larritasunaren mailaren pertzeptzioa aztertu dira.

2017ko maiatzean, Oiartzungo Udaleko Adingabekoen Mahaiari interesgarria iruditu zitzaion gazteek egiten dituzten erabilera desegokiak eta gurasoek uste dutena konparatzea. Helburu hori lortzeko asmoz galdetegi bera egokitua izan zen eta maiatza-ekaina bitartean datuak jaso ziren Elizatxo ikastetxe eta Haurtzaro ikastolari esker.

Ondoko lerroetan, lortutako emaitzak aurkeztu nahi ditugu galdetegiaren egitura errespetatuz. Galdetegi horren lehen atalean datu sozialak azaltzen dira (ikaketxearen identifikazioa, gurasoen adina, seme/alabaren kurtsoa, galdetegia betetzen ari denaren generoa –ama,aita edo biak..., eta abar).

Erabilera desegokiaren atalean 5 arlo neurtu dira: erabilera ohiturak, edukiak eta deskargak, datuen kudeaketa, harremanak eta argitalpenak. Arlo bakoitzean desegokiak diren ekintza desberdinak aurkeztu dira eta gurasoek 4 aukeren artean aukeratu behar zuten bat (uste dut nire semea/alabak ez duela inoiz egiten, batzuetan egiten du, sarritan egiten du, beti egiten du). Halaber, gurasoek baloratu behar izan dute aurkeztutako erabilera desegoki bakoitzaren larritasun maila 3ko eskala batean (ekintza desegoki horren larritasuna (1) arina iruditzen zait, (2) tartekoa, edo (3) larria).

Gazteek egiten dutena (edo hobeto esanda, beraiek egiten dutenari buruz esaten dutena) eta gurasoek uste dutena konparaketa errazteko bi datuak aurkeztuko ditugu jarraian. Horregatik gurasoei aurkeztutako erabilera desegoki bakoitza beltzez azaltzen da, eta horren azpian, grisez, ikasleen inkestan formulatutako itema (ideia bera, baina egokituta). Desbertintasanak markatu ditugu geziz. Hamarren bateko aldea dagoenean, kontsideratu dugu desbertintasanak ematen direla.

Halaber, gazteekin egin genuen bezala gurasoei galdetu diegu, (1) aplikazio edo sare sozial batzuk erabiltzeko, beraien ustez, zer adina den beharrezkoa, eta (2) beharrezko den adina izan gabe zer larritasun maila daukan horiek erabiltzea.

Azkenik, gurasoen inkestan bi arlo gehiago txertatu dira gurasoek erabilerari buruz jartzen dituzten “Arauk eta mugak” eta erabiltzen duten “bitartekaritza” estiloa aztertzeko asmoz. Txosten honetan lortutako datu horiek ere azaltzen dira.

Txosten hau, lagungarriak izan daitezkeen ondorio batzuekin bukatzea erabaki dugu. Lan hau egin duen taldeak (FISHERNET Hezkuntza-Teknologia) egindako lan hau benetan baliagarria izatea espero du. Dударik gabe, bi urte hauetan lortutako datuen azterketa aukera berriak irekitzen dizkigu eskola arloan eta familia esparruan erabilera desegokiak murrizteko diseinatu daitezkeen hezkuntza esku-hartzeak egiteko .

1. Parte-hartzaileen datuak

Ikastetxea

	Frequency	Percent	Valid Percent	Cumulative Percent
Hautzaro	228	62,6	62,6	62,6
Elizalde	136	37,4	37,4	100,0
Total	364	100,0	100,0	

Nork bete du galdetegia?

	Frequency	Percent	Valid Percent	Cumulative Percent
aita	55	15,1	15,1	15,1
ama	240	65,9	65,9	81,0
biak elkarrekin	67	18,4	18,4	99,5
beste (tutore legala)	2	,5	,5	100,0
Total	364	100,0	100,0	

Galdetegia bete dutenaren adina

	Frequency	Percent	Valid Percent	Cumulative Percent
1<30	1	,3	,3	,3
31-40	34	9,3	9,3	9,6
41-50	289	79,4	79,4	89,0
51-60	38	10,4	10,4	99,5
>60	2	,5	,5	100,0
Total	364	100,0	100,0	

Seme edo alabaren generoa

	Frequency	Percent	Valid Percent	Cumulative Percent
Mutila	153	42,0	42,0	42,0
Neska	196	53,8	53,8	95,9
Beste	15	4,1	4,1	100,0
Total	364	100,0	100,0	

Zure seme edo alabaren kurtsoa


	Frequency	Percent	Valid Percent	Cumulative Percent
LH 5	84	23,1	23,1	23,1
LH 6	67	18,4	18,4	41,5
DBH 1	66	18,1	18,1	59,6
DBH 2	59	16,2	16,2	75,8
DBH 3	37	10,2	10,2	86,0
DBH 4	50	13,7	13,7	99,7
Beste	1	,3	,3	100,0

Seme edo alabaren adina

	Frequency	Percent	Valid Percent	Cumulative Percent
10	39	10,7	10,7	10,7
11	75	20,6	20,6	31,3
12	71	19,5	19,5	50,8
13	64	17,6	17,6	68,4
14	43	11,8	11,8	80,2
15	47	12,9	12,9	93,1
16	22	6,0	6,0	99,2

Total	364	100,0	100,0			17	3	,8	,8	100,0
Total	364	100,0	100,0			Total	364	100,0	100,0	

2. Gazteek erabiltzen dituzten tresnak (Gazteei zuzendutako inkestetatik aterata, 2017)



- Ez dut erabiltzen
- Erabili izan dut
- Erabiltzen dut

3. Erabilera eta larritasun mailaren analisiak atalka

3.1 Erabilera ohiturak

Erabilera ohiturak: erabilera

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	↗ ↘
8.1.	Teknologia digitalak erabiltzen ditu baimenik gabe Tresna digitalak erabiltzen ditut baimenik gabe	1,79	1,96	↗
8.2.	Beste gauza batzuetan aritu behar duenean (etxerako lanak...) erabiltzen ditu. Beste gauza batzuetan aritu behar dudanean (etxerako lanak...) erabiltzen ditut.	1,76	1,97	↗
8.3.	Eskola orduetan telefono mugikorra erabiltzen du irakaslearen baimenik gabe. Eskola orduetan telefono mugikorra erabiltzen dut irakaslearen baimenik gabe.	1,11	1,08	≈
8.4.	Egunean bi ordu edo gehiagoz erabiltzen ditu jolasteko, lagunekin hitz egiteko, e.a. Egunean bi ordu edo gehiagoz erabiltzen ditut jolasteko, lagunekin hitz egiteko, e.a.	2,23	2,05	↘
8.5.	Esaten diguna baino gehiago erabiltzen du Guraso edo irakasleei esaten didan baina denbora gehiago erabiltzen ditut.	1,69	1,78	≈
8.6.	Anai-arrebak edo lagunak erabilerari buruz etxean jarritako arauak haustera animatzen ditu. Anai-arrebak edo lagunak erabilerari buruz etxean dauden arauak haustera animatzen ditut.	1,15	1,20	≈
8.7.	Lagun edo anai-arrebei laguntzen die tresnak erabiltzen gure baimena ez badu ere. Lagun edo anai-arrebei laguntzen diet tresnak erabiltzen gurasoen baimena ez badute ere.	1,36	1,28	↘

Erabilera ohiturak: Larritasun maila

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	↗ ↘
8.1.	Teknologia digitalak erabiltzen ditu baimenik gabe Tresna digitalak erabiltzen ditut baimenik gabe	1,73	2,09	↗
8.2.	Beste gauza batzuetan aritu behar duenean (etxerako lanak...) erabiltzen ditu. Beste gauza batzuetan aritu behar dudanean (etxerako lanak...) erabiltzen ditut.	1,76	2,07	↗
8.3.	Eskola orduetan telefono mugikorra erabiltzen du irakaslearen baimenik gabe. Eskola orduetan telefono mugikorra erabiltzen dut irakaslearen baimenik gabe.	2,16	2,47	↗
8.4.	Egunean bi ordu edo gehiagoz erabiltzen ditu jolasteko, lagunekin hitz egiteko, e.a. Egunean bi ordu edo gehiagoz erabiltzen ditut jolasteko, lagunekin hitz egiteko, e.a.	1,68	2,19	↗
8.5.	Esaten diguna baino gehiago erabiltzen du Guraso edo irakasleei esaten diedan baina denbora gehiago erabiltzen ditut.	1,72	2,17	↗
8.6.	Anai-arrebak edo lagunak erabilerari buruz etxean jarritako arauak haustera animatzen ditu. Anai-arrebak edo lagunak erabilerari buruz etxean dauden arauak haustera animatzen ditut.	2,05	2,30	↗
8.7.	Lagun edo anai-arrebei laguntzen die tresnak erabiltzen gure baimena ez badu ere. Lagun edo anai-arrebei laguntzen diet tresnak erabiltzen gurasoen baimena ez badute ere.	1,90	2,20	↗

3.2 Edukiak eta deskargak

Edukiak eta deskargak: erabilera

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
9.1.	Helduei zuzendutako edukietan sartzen da (helduentzako jolasak, helduen Web orrialdeak, ...). Helduei zuzendutako edukietan sartzen naiz (helduentzako jolasak, helduen orrialdeak, ...).	1,38	1,39	≈
9.2.	Internetetik lanak kopiatzen ditu egilea adierazi gabe Internetetik lanak kopiatzen ditut egilea adierazi gabe	1,36	1,20	↘
9.3.	Internetetik pelikulak, musika, e.a., deskargatzen ditu baimendu gabeko tokietatik. Internetetik pelikulak, musika, e.a., deskargatzen ditut baimendu gabeko tokietatik.	1,66	1,28	↘
9.4.	Ordaindu beharreko aplikazio edo programak jaisten ditu gurasoen/ hezitzaileen baimenik gabe. Ordaindu beharreko aplikazio edo programak jaisten ditut gurasoen/hezitzaileen baimenik gabe.	1,20	1,06	↘
9.5.	Gure edo beste heldu batzuen pasahitzak erabiltzen ditu Interneten baimenik gabe sartzeko. Nire guraso edo beste heldu batzuen pasahitzak erabiltzen ditut Interneten baimenik gabe sartzeko.	1,10	1,06	≈
9.6.	Baimenik gabe gure pasahitza erabiliz erosketak burutzen ditu Interneten. Baimenik gabe heldu baten kontua edota pasahitza erabiliz erosketak burutzen ditut Interneten.	1,09	1,02	≈

Edukiak eta deskargak: larritasun maila

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
9.1.	Helduei zuzendutako edukietan sartzen da (helduentzako jolasak, helduen Web orrialdeak, ...). Helduei zuzendutako edukietan sartzen naiz (helduentzako jolasak, helduen orrialdeak, ...).	1,97	2,34	↗
9.2.	Internetetik lanak kopiatzen ditu egilea adierazi gabe Internetetik lanak kopiatzen ditut egilea adierazi gabe	1,93	2,26	↗
9.3.	Internetetik pelikulak, musika, e.a., deskargatzen ditu baimendu gabeko tokietatik. Internetetik pelikulak, musika, e.a., deskargatzen ditut baimendu gabeko tokietatik.	1,83	2,18	↗
9.4.	Ordaindu beharreko aplikazio edo programak jaisten ditu gurasoen/ hezitzaileen baimenik gabe. Ordaindu beharreko aplikazio edo programak jeisten ditut gurasoen/hezitzaileen baimenik gabe.	2,18	2,49	↗
9.5.	Gure edo beste heldu batzuen pasahitzak erabiltzen ditu Interneten baimenik gabe sartzeko. Nire guraso edo beste heldu batzuen pasahitzak erabiltzen ditut Interneten baimenik gabe sartzeko.	2,27	2,53	↗
9.6.	Baimenik gabe gure pasahitza erabiliz erosketak burutzen ditu Interneten. Baimenik gabe heldu baten kontua edota pasahitza erabiliz erosketak burutzen ditut Interneten.	2,34	2,56	↗

3.3. Datuen kudeaketa

Datuen kudeaketa: Erabilera

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
10.1.	Kontu bat sortzen duenean berea ez den izen batekin egiten du Kontu bat sortzen dudanean nirea ez den izen batekin egiten dut.	1,51	1,25	↘
10.2.	erabiltzen dituen pasahitzak gu ez garen beste pertsona batzuei ematen dizkie Sare sozialetan erabiltzen ditudan pasahitzak nire guraso/irakasleak ez diren beste pertsona batzuei ematen dizkiet.	1,18	1,05	↘
10.3.	Pasahitza oso errazak erabiltzen ditu (izena, jaoitze data, ...). Pasahitza oso errazak erabiltzen ditut (izena, jaoitze data, ...)	1,61	1,50	↘
10.4.	Bere profilean informazio pribatua (abizenak, telefonoa, etxeko helbidea, e.a.) erakusten du. Nire profilean informazio pribatua (abizenak, telefonoa, etxeko helbidea, e.a.) erakusten dut.	1,28	1,15	↘
10.5.	Beste pertsona bat izango balitz bezala jokatzeko du (Instagramen, Whatsappen, Facebooken...). Beste pertsona bat izango banintz bezala jokatzeko dut (Instagramen, Whatsappen, Facebooken...).	1,21	1,04	↘
10.6.	Kontu bat sortzen duenean, ez du bere benetako adina esaten. Kontu bat sortzen dudanean, ez dut nire benetako adina esaten.	1,84	1,36	↘
10.7.	Sare sozialetan bere kokapena erakusten du. Sare sozialetan nire kokapena erakusten dut.	1,26	1,20	≈
10.8.	Bere profila irekia da, beraz edonork ikusi dezake argitaratzen duena. Nire profila irekia da, beraz edonork ikusi dezake argitaratzen dudana.	1,26	1,21	≈

Datuen kudeaketa: larritasun maila

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
10.1.	Kontu bat sortzen duenean berea ez den izen batekin egiten du Kontu bat sortzen dudanean nirea ez den izen batekin egiten dut.	1,77	2,12	↗
10.2.	erabiltzen dituen pasahitzak gu ez garen beste pertsona batzuei ematen dizkie Sare sozialetan erabiltzen ditudan pasahitzak nire guraso/irakasleak ez diren beste pertsona batzuei ematen dizkiet.	2,14	2,47	↗
10.3.	Pasahitza oso errazak erabiltzen ditu (izena, jaoitze data, ...). Pasahitza oso errazak erabiltzen ditut (izena, jaoitze data, ...)	1,87	2,11	↗
10.4.	Bere profilean informazio pribatua (abizenak, telefonoa, etxeko helbidea, e.a.) erakusten du. Nire profilean informazio pribatua (abizenak, telefonoa, etxeko helbidea, e.a.) erakusten dut.	2,14	2,47	↗
10.5.	Beste pertsona bat izango balitz bezala jokatzeko du (Instagramen, Whatsappen, Facebooken...) Beste pertsona bat izango banintz bezala jokatzeko dut (Instagramen, Whatsappen, Facebooken...).	2,13	2,49	↗
10.6.	Kontu bat sortzen duenean, ez du bere benetako adina esaten. Kontu bat sortzen dudanean, ez dut nire benetako adina esaten.	1,82	2,26	↗
10.7.	Sare sozialetan bere kokapena erakusten du. Sare sozialetan nire kokapena erakusten dut.	2,07	2,36	↗
10.8.	Bere profila irekia da, beraz edonork ikusi dezake argitaratzen duena. Nire profila irekia da, beraz edonork ikusi dezake argitaratzen dudana.	2,05	2,34	↗

3.4. Harremanak

Harremanak: Erabilera

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
11.1.	Ezezagunen laguntasun gonbidapenak onartzen ditu. Ezezagunen laguntasun gonbidapenak onartzen ditut.	1,48	1,21	↘
11.2.	Publikoki kide bati buruz gaizki esaka aritzen da. Publikoki kide bati buruz gaizki esaka aritzen naiz.	1,15	1,08	≈
11.3.	Bere kide batzuk baztertzen ditu (taldetik kanpo utzi, blokeatu, kasurik ez egin...) Nire kide batzuk baztertzen ditut (taldetik kanpo utzi, blokeatu, kasurik ez egin...).	1,23	1,14	↘
11.4.	Kideak mehatxatzen ditu. Kideak mehatxatzen ditut.	1,11	1,02	≈
11.5.	Sare sozialen bitartez ezagutu dituen pertsonekin kalean gelditzen da. Sare sozialen bitartez ezagutu ditudan pertsonekin kalean gelditzen naiz.	1,22	1,05	↘
11.6	Beste pertsona batzuei buruz gezurrak esaten ditu. Beste pertsona batzuei buruz gezurrak esaten ditut.	1,14	1,03	↘
11.7	Eraso/jazarpena bultzatzen dituzten komentarioak egiten ditu. Eraso/jazarpena bultzatzen dituzten komentarioak egiten ditut.	1,13	1,02	↘
11.8	Oso pertsonalak diren gauzak (sentimenduak, erlazioak...) kontatzen dizkie ondo ezagutzen ez dituen pertsoneri. Oso pertsonalak diren gauzak (sentimenduak, erlazioak...) kontatzen dizkiet ondo ezagutzen ez ditudan pertsoneri.	1,18	1,05	↘
11.9	Mintzen dituzten kritikak edo zurrumurrak berbidaltzen ditu. Mintzen dituzten kritikak edo zurrumurrak berbidaltzen ditut.	1,14	1,07	≈
11.10	Pertsona bat erasotua denean ez da inplikutzen. Pertsona bat erasotua denean ez naiz inplikutzen.	1,47	1,37	↘

Harremanak: Larritasun maila

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
11.1.	Ezezagunen laguntasun gonbidapenak onartzen ditu. Ezezagunen laguntasun gonbidapenak onartzen ditut.	2,03	2,48	↗
11.2.	Publikoki kide bati buruz gaizki esaka aritzen da. Publikoki kide bati buruz gaizki esaka aritzen naiz.	2,23	2,57	↗
11.3.	Bere kide batzuk baztertzen ditu (taldetik kanpo utzi, blokeatu, kasurik ez egin...). Nire kide batzuk baztertzen ditut (taldetik kanpo utzi, blokeatu, kasurik ez egin...).	2,20	2,55	↗
11.4.	Kideak mehatxatzen ditu. Kideak mehatxatzen ditut.	2,27	2,60	↗
11.5.	Sare sozialen bitartez ezagutu dituen pertsonekin kalean gelditzen da. Sare sozialen bitartez ezagutu ditudan pertsonekin kalean gelditzen naiz.	2,07	2,52	↗
11.6	Beste pertsona batzuei buruz gezurrak esaten ditu. Beste pertsona batzuei buruz gezurrak esaten ditut.	2,19	2,58	↗
11.7	Eraso/jazarpena bultzatzen dituzten komentarioak egiten ditu. Eraso/jazarpena bultzatzen dituzten komentarioak egiten ditut.	2,29	2,60	↗
11.8	Oso pertsonalak diren gauzak (sentimenduak, erlazioak...) kontatzen dizkie ondo ezagutzen ez dituen pertsoneri. Oso pertsonalak diren gauzak (sentimenduak, erlazioak...) kontatzen dizkiet ondo ezagutzen ez ditudan pertsoneri.	2,14	2,56	↗
11.9	Mintzen dituzten kritikak edo zurrumurruak berbidaltzen ditu. Mintzen dituzten kritikak edo zurrumurruak berbidaltzen ditut.	2,22	2,50	↗
11.10	Pertsona bat erasotua denean ez da inplikitzen. Pertsona bat erasotua denean ez naiz inplikitzen.	2,17	2,48	↗

3.5. Argitalpenak

Argitalpenak: Erabilera

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
12.1.	Gure baimenik gabe igotzen ditu argazki edo bideoak. Nire gurasoen baimenik gabe igotzen ditut argazki edo bideoak.	1,89	1,65	↘
12.2.	Lagunen argazki edo bideoak argitaratzen ditu beraien baimenik gabe. Lagunen argazki edo bideoak argitaratzen ditut beraien baimenik gabe.	1,31	1,17	↘
12.3.	Bera eta bere lagunak agertzen diren bideoak argitaratzen ditu, gure baimena eduki gabe. Ni eta nire lagunak agertzen garen bideoak argitaratzen ditut, gurasoen baimena eduki gabe.	1,61	1,40	↘
12.4.	Bere ikaskideen argazki konprometituak igotzen ditu beraiek jakin gabe. Nire ikaskideen argazki konprometituak igotzen ditut beraiek jakin gabe.	1,13	1,03	↘
12.5.	Kideen arteko jazarpena/erasoari mesede egiten dioten argazki edo komentarioak argitaratzen ditu. Kideen arteko jazarpena/erasoari mesede egiten dioten argazki edo komentarioak argitaratzen ditut.	1,13	1,02	↘
12.6.	Bere lagunen adinerako desegokiak diren argazki, txiste edo bideoak argitaratzen ditu. Nire lagunen adinerako desegokiak diren argazki, txiste edo bideoak argitaratzen ditut.	1,18	1,08	↘
12.7.	Bere argazki edo bideoak argitaratu eta gero gaizki sentitzen da. Nire argazki edo bideoak argitaratu eta gero gaizki sentitzen naiz.	1,20	1,09	↘
12.8.	Beste pertsona batzuei min egiten dien argazkiak eta bideoak birbidali edo partekatzen ditu. Beste pertsona batzuei min egiten dien argazkiak eta bideoak berbidali edo partekatzen ditut.	1,14	1,04	↘

Argitalpenak: Larritasun maila

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
12.1.	Gure baimenik gabe igotzen ditu argazki edo bideoak. Nire gurasoen baimenik gabe igotzen ditut argazki edo bideoak.	1,87	2,31	↗
12.2.	Lagunen argazki edo bideoak argitaratzen ditu beraien baimenik gabe. Lagunen argazki edo bideoak argitaratzen ditut beraien baimenik gabe.	2,07	2,49	↗
12.3.	Bera eta bere lagunak agertzen diren bideoak argitaratzen ditu, gure baimena eduki gabe. Ni eta nire lagunak agertzen garen bideoak argitaratzen ditut, gurasoen baimena eduki gabe.	1,94	2,43	↗
12.4.	Bere ikaskideen argazki konprometituak igotzen ditu beraiek jakin gabe. Nire ikaskideen argazki konprometituak igotzen ditut beraiek jakin gabe.	2,26	2,61	↗
12.5.	Kideen arteko jazarpena/erasoari mesede egiten dioten argazki edo komentarioak argitaratzen ditu. Kideen arteko jazarpena/erasoari mesede egiten dioten argazki edo komentarioak argitaratzen ditut.	2,25	2,62	↗
12.6.	Bere lagunen adinerako desegokiak diren argazki, txiste edo bideoak argitaratzen ditu. Nire lagunen adinerako desegokiak diren argazki, txiste edo bideoak argitaratzen ditut.	2,14	2,51	↗
12.7	Bere argazki edo bideoak argitaratu eta gero gaizki sentitzen da. Nire argazki edo bideoak argitaratu eta gero gaizki sentitzen naiz.	1,94	2,41	↗
12.8	Beste pertsona batzuei min egiten dien argazkiak eta bideoak birbidali edo partekatzen ditu. Beste pertsona batzuei min egiten dien argazkiak eta bideoak berbidali edo partekatzen ditut.	2,27	2,61	↗

4. Aldagai konposatuak

Erabilpenak

	GAZTEAK 2017	GURASOAK	
e_erabilera ohiturak	1,5767	1,5923	≈
e_edukiak_deskargak	1,2977	1,1604	↘
e_datu_kudeaketa	1,3914	1,2170	↘
e_harremanak	1,2187	1,0957	↘
e_argitalpenak	1,3159	1,1752	↘

Larritasun maila

	GAZTEAK 2017	GURASOAK	
Im_erabilera ohiturak	1,8594	2,2208	↗
Im_edukiak_deskargak	2,0935	2,4104	↗
Im_datu_kudeaketa	2,0016	2,3219	↗
Im_harremanak	2,1873	2,5077	↗
Im_argitalpenak	2,0943	2,5194	↗

5. Adina eta kontuak

		GAZTEAK 2017	GURASOAK	
13	Zure seme/alabak erabilera edota pribatutsaun baldintzak irakurtzen ditu aplikazio bat (Facebook, Whatsapp, Instagram...) erabili baino lehen? Erabilera edota pribatutasun baldintzak irakurtzen dituzu aplikaziobat erabili baino lehen?	2,31	1,89	↘
14	<i>Adierazi ekintza hauek arinak, tartekoak edota larriak iruditzen zaizkizun.</i>			
14.1.	Facebook	15,39	16,53	↗
14.2.	Twitter	15,31	16,55	↗
14.3.	Snapchat/ Tuenti	13,72	15,86	↗
14.4.	Gmail	12,17	13,82	↗
14.5.	Whatsapp	12,87	13,73	↗
14.6.	Instagram	13,95	15,49	↗
14.1	Eskatzen duten gutxieneko adina izan gabe kontu bat izatea (Facebook, Twitter, Whatsapp, Instagram, Gmail,...) iruditzen zait. (Larritasun maila) Eskatzen duten gutxieneko adina izan gabe kontu bat izatea (Facebook, Twitter, Tuenti, Whatsapp, Instagram, Gmail,...) iruditzen zait...	2,03	2,30	↗
14.1	Zure seme/alabaren argazkiak argitaratzen dituzu giza sareetan (Instagram, Facebook...)?		1,38	

6. Arauak eta mugak

		GURASOAK
12.1.	Teknologia digitalen erabilerari buruzko arauak jartzen ditut.	2,96
12.2.	Teknologia digitalen erabilerari buruzko arauak betearazten ditut	3,01
12.3.	Teknologia digitaleko erabilerari buruzko arauak betetzen eredu naiz	3,14
12.4.	Internet, bideo-jokoen,...erabileragatik liskarrak ditugu.	2,18
12.5.	Teknologia digitaletan egiten duena gainbegiratzen dut: ikusi dituen web orrialdeak, bere mezuak, onartzen dituen lagunak,...	2,47
12.6.	Eduki (edo Web orrialde batzuk) blokeatzeko neurriak hartzen ditut seme-alabak ez erabiltzeko.	1,84

7. Gurasoen bitartekaritza

		GURASOAK
12.1.	Internet, bideo-jokoetan,...egiten duenari buruz nire seme-alabarekin hitz egiten dut. -	2,89
12.2.	Bere kabuz esploratzen eta ikasten animatzen dut. -	2,11
12.3.	Elkarrekin erabiltzen ditugu teknologia digitalak -	2,46
12.4.	Interneten zerbait egiteko edo aurkitzeko zaila denean laguntzen diot. -	2,94
12.5.	Azaltzen diot zergatik eduki batzuk (web orriak, bideojokuak...) arriskutsuak diren. -	3,23
12.6.	Teknologia digitalak segurtasunez erabiltzen erakusten diot. -	3,01
12.7	Mobila edo ordenadorea erabiltzerakoan gertatu zaion zerbaitengatik gaizki sentitu denean lagundu diot. -	2,79
12.8	Mobila edo ordenagailua erabiltzerakoan gertatu zaion zerbaitengatik gaizki sentitzen denean zer egin daiteken erakutsi diot. -	2,83
12.9	Teknologia digitalak erabiltzen dituenengan berarekin egoten naiz toki berean. -	2,51
12.10	Denbora luze ematen badu bideo-jokoak, mobila edo ordenagailua erabiltzen, beste jarduera batzuk egitera animatzen dut. -	3,34

8. Ondorioak

Txosten honetan aurkeztutako datuak landu eta gero ondoko ideiak azpimarratu nahiko genituzke:

- Gizonen (aita) parte-hartzea oso bajua izan emakumeekin (ama) alderatzen baditugu. Datu honek inkestare helburua gaingitzen badu ere, zer pentsatu eman beharko liguke, batez ere gizarte berdintsuagoa lortu nahi izanez gero. Egindako lanarekin lotuta datu horrek ere ondoko zalantza sortzen digu: zer puntutaino gizonak (aita) inplikaturik daude gaztekoen teknologia berrien erabilera egokian? Inkesta betetzearekin gertatu den bezala, gazteen teknologiaren erabilera arduratsua lortzea emakumeengan (ama) gelditzen da?.
- Gazteek egiten duten erabilerari dagokionean esan behar dugu gurasoen pertzepzioa ez dela gehiegi urruntzen gazteek egiten duten erabileratik. Orokorrean, bi kolektibo horien erantzun gehienak “ez dut inoiz egiten” edo “gutxitan egiten dut” aukeren artean kokatu dira.
- Hala ere, datuak alderatzen baditugu orokorrean gurasoek uste dute beraien seme-alabek erabilera desegoki gutxiago egiten dutela. Beraz gurasoek uste dute gazteak teknologia erabiltzerakoan hobeto xeago portatzen direla gazteak, hauek errealitatean onartzen dutena baino.
- Aztertutako bost esparruen artean (erabilera ohiturak, edukiak eta deskargak, datuen kudeaketa, harremanak eta argitalpenak) arestian aipatutako joera garbi ikusten da “erabilera ohitura” atalean izan ezik. Honetan gurasoen pertzepzioa eta gazteena oso parekatuta daude. Galdetegiaren beste ataletan gertatzen ez den bezala, gurasoek gazteek onartzen dutena baino sarriagotan egiten dituzte erabilera desegokiak, hala nola: teknologia digitalak erabiltzea baimenik gabe. Kontuan hartu behar dugu, atal hori (erabilera ohiturak) dela, segurazko, gurasoei kontrolatzeko errezena egiten zaiena (zailagoa da kontrolatzea erabilera denbora, teknologia digitalekin egiten dena baino).
- Erabilera ohituraz gain, gurasoak, gazteak bezala, erabilera desegoki gehiago hautematen dituzte kontuen kudeketan (benetako adina eta izena ez esatea kontu bat sortzerakoan...).
- Larritasun mailari dagokionean, gurasoek orokorrean larriagotzat hartzen dute erabilera desegokiak egitea. Joera hau nabarmena da galdetegiaren atal guztietan. Gurasoek ekintza desegokiaren larritasun maila ertaina eta larriaren artean kokatu dute erantzun gehinetan.
- Gurasoei galdetu diegunean beraien ustez zein den eskatzen den gutxieneko adina aplikazio batzuk erabiltzeko (Facebook, Twitter, Snapchat...) nabarmen ikusi dugu guraso gehienek legeak markatzen duena baino gorago jarri dutela gutxieneko adina. Baita ere, gazteek erantzun dutena baino gorago jarri dute muga hori.
- Jarritako arau eta mugei buruz aipatu behar da gehienek teknologia digitalen erabilerari buruzko arauak jarri eta betearazten dituztela. Horrekin batera, guraso gehienek neurri teknikoak alboratu (blokeatu aplikazioak...) eta beraien erabilera ereduak jartzen saiatzen ari dira. Erabilerarekin lotutako liskarrak noizean behin sortzen badira ere, azpimarratzekoa da, guraso gehienak gazteekin arriskuak lantzen saiatzen direla eta gehiegizko erabilera ematen denean beste jarduerak batzuk egitera animatzen dutela.